

DANBOLIN MUSIKA ESKOLA

2017-2018 IKASTURTEKO MATRIKULA ARAUAK

- 1.- Ordaindu beharreko kuota guztiak ordainduta edukitzea.
- 2.- Epez kanpora ez dago matrikula egiterik.
- 3.- Ikasle ofizialek zein berriek ekainean edo irailean matrikulatzeko aukera izango dute.
- 4.- Ikasle bat ondo matrikulatua gelditzeko: Matrikula orria ondo beteta eta sinatuta ekarri behar du.
- 5.- Bi talde dauden kurtsoetan, ikasle kopuru berdina egon behar dute. Taldeak ikasle kopuruz berdinduta badaude, ikasleak aukeratuko du zein taldean sartu. Aldiz, taldeak deskonpentsatuta badaude, zuzendariak talde bat itxi eta ikasleak bestean sartu beharko du, honetarako izen emate zerrenda jarraituko da.
- 6.- Matrikulazioaren arabera, zuzendaritzari dagokio, tailerra, musika mintzaira eta dantzako ordutegiak mantendu edo aldatzea.
- 7.- 2. mailan instrumentuko matrikulazioa mugatua izango da, plaza kopurua, ikasle kopuruaren arabera izango da. Tailerra 3. kurtsoko ikasle ofizialek izango dute preferentzia, baina plazak banatzeko ikasle gehiegi badago, ondorengo baldintzak kontuan hartuko dira:
 1. Orion erroldaturik dauden ikasleek lehentasuna izango dute.
 2. Gaingidutako tailerreko ikasturte kopurua.Baldintza berdinetan dauden ikasle kopurua, plaza kopurua baino handiagoa bada, zozketa egingo da. Zozketan, instrumentua tokatu ez zaion ikasleak, erreserba orrian jarritako hurrengo instrumentua aukeratu beharko du.
- Salbuespena:
 2. mailan, ikasle berri bat edozein instrumentuetan matrikulatu daiteke, nahiz eta plazarik ez egon, ondorengo bi baldintzak betetzen baditu:
 - Beste herri batetik Oriora bizitzera baldin badator.
 - Bere ikasketa musikalak hasiak baditu.Beharrezko dokumentazioa;
 - Orioko errolda ziurtagiria.
 - Ikasi duen musika eskolaren ziurtagiria.
- 8.- 1. mailan izena ematen duten ikasle berriek, ikasturtea hasi ondoren, 15 egun dituzte probatzeko. Arazoren bat sortuz gero, baxa ematen badu, egindako ingresoa itzuliko zaio.
- 9.- Ikasle batek ikasturtea hasi ondoren baxa ematen badu, matrikularen dirua ez zaio itzuliko eta osoa kobratuko zaio.
- 10.- Matrikula gutxitzea nahi duenak matrikula egiteko epean eskatu behar du, eskaera orria ondo bete behar duelarik. Handik kanpora egindako eskaerarik ez da onartuko.
- 11.- Matrikula gutxitzea, hau da, erredukzioa onartzen zaion ikasleak, ikasturtea ondo gaingitu beharko du. Horrela ez bada, eta hurrengo ikasturtean berriro eskatuko balu erredukzioa, ez litzaioke emango.
- 12.- Matrikula egiteko orduan gertatzen den eta arau hauetan hala nola barne araudian jasota ez dagoen edozein okerri buruzko erabakia hartzea Zuzendaritzari dagokio.**

DANBOLIN MUSIKA ESKOLA

2017-2018 IKASTURTEKO ARAUAK

1.- Instrumentuko ordua ikasturte bakoitzean adierazten den lehen egunean jarriko da. Ekainean “a”-tik hasi eta “z” bitartean dauden letra bat aterako da zozketa bidez. Irailean, ordutegiak jartzeko bilera egunean letra horrekin hasten den abizena izango da lehena ordutegia aukeratzen. Horrela, orden alfabetikoan jarraituko da. Lehendabizi 2. mailakoek aukeratuko dute eta gero 3. mailakoek.

2.- Musika eskolan, maila bakoitzeko diploma lortzeko, gainditu beharrekoa:

1. MAILA:

- Tailerreko 3. kurtsoa gainditu behar da.

2. MAILA:

- Musika mintzairako 4. kurtsoa gainditu behar da.

- Instrumentuko 4. kurtsoa gainditu behar da.

- 2. mailan dagokion instrumentuko taldeko partaidea izatea, ikasleak taldetako partaide izateko maila duenetik. Maila honetan dagokion instrumentuko talderik ez badago, beste talde instrumental batean partaide puntuala izatea eskatu dezake.

3. MAILA:

- Instrumentuko 5. kurtsoa gainditu behar da.

- 3. mailan dagokion instrumentuko taldeko partaide izatea. Maila honetan dagokion instrumentuko taldea ez badago, beste talde instrumental batean partaide puntuala izatea eskatu dezake.

OHARRA, ASISTENTZIA:

- Maila bakoitza gainditzeko, dauden ikasgaien asistentzia minimoa % 90koa izan behar du.

3.- Tresna ikasketetako ikasleak ez dauka instrumentua erosi beharrik gomendagarria bada ere, musika eskolako bat alokatu dezake. Hori bai, lehentasuna lehenengo ikasturteko ikasleak izango du.

4.- Musika eskolako talde batean parte hartu nahi duen ikasleak, doan izango du baldin eta beste gairen batean matrikulatua badago. Matrikulatua ez dagoen ikasleak, ikasturteari dagokion matrikula ordaindu beharko du.

5.- Ikasteko gogo gutxi eta falta asko egiten duen ikasleak ez du hurrengo urterako tokirik gordetzeko eskubiderik izango, eta ez da, orobat, ikasle ofizial izango.

6.- Klasea bukatu eta ikaslea musika eskolako gelatik irten ondoren, gurasoen ardura izango da.